

Neska zar bat tentatzen

Txirrita

Do - ze - na bat ber - tso rik nahi ni - tuz - ke ja - rri
 ja - ie - tan kan - ta - tze - ko en - tre - te - ni - ga - rri,
 ne - re - pu - bli - ka - tzi - la i - zan - go da sa - rri
 a - la - ban - tzak e - ma - naz zen - bait nes - ka zaha - rri.

1. Dozena bat bertso nik
 nahi nituzke jarri
 jaietan kantatzeko
 entretenigarri,
 nere publikatzea
 izango da sarri
 alabantzak emanaz
 zenbait neska zaharri.

2. Neska zahar bat tentatzen
 hasi naiz lehenguan,
 izan ere halako
 polita zeguan,
 umil eta serio
 hitz egin genduan
 baina gustu guziak
 ez dira munduan.

3. Hizketan hasi ginen
 biak gozo-gozo,
 ezkontzeko mandatu
 egin nion atzo,
 leihotikan ujuka
 ama ta bi atso:
 "ez duk harrapatuko
 uste bezain mantso".

4. Ama preparatu zait
 hasarrez betea,
 lehenbiziko ujua:
 "zenbat duk dotea?
 Hainbeste kostatako
 alaba maitea,
 lastima izango duk
 hiri ematea".

5. "Zure familiari
 errespetoz heldu
 inozente daudenak
 ez daitezen galdu,
 diru truke alaba
 nahi zenuke saldu
 le(he)nago erostunik
 ez al zaio azaldu?"

6. Nire jakinduria
 ari da atzentzen
 errez dela uste du
 zenbaitek ezkontzen,
 promesa on bat eginda
 ez bazara ontzen,
 lanak izango dira
 zurekin konpontzen.

7. "Ez duzu sinistu nahi
 egia esanda_ere
 zintzoa nahi genuke
 pobrea izanda_ere,
 gure bazterrak baino
 hobiak non dare,
 alabari sasoia
 pixka bat joanda_ere".

8. "Bere alabarentzat
 horrenbeste fama!
 Nik ez dut sinistatzen
 haizeak darama,
 zure bazterrean nik
 egitea lana...
 izan liteke baina
 ez dut uste ama!"

9. "Ez al dela uste duk
 horren errespuestik?
 Atarrantu onik
 mutil za(ha)rrak ez dik!
 Nire alabak ez dauka
 ezkontzeko kezka
 hi ez bezalakoak
 nahi ez ta zekazkik"

10. "Hitz bat esan behar dut
 nire borondatez
 ez banau inork lotzen
 grilluz edo katez,
 ezkontzeko ideiak
 banituen ustez,
 ardoa maitatzen dut
 andrearen partez".

11. Mutil malizioso
 deabruz betea,
 ez dizut zabalduko
 gehiago atea,
 behin´e etzattut izandu
 bihotzez maitea
 nigandik libre zara...
 hor konpon zaitea!"

12. Horra hamabi bertso
 oraingo berriak
 bere andregaiari
 Txirritak jarriak,
 eman dizkit desgustu
 ikaragarriak
 negarra egin dezake
 nigatik harriak.